



Familia agurgarriak:

Zuengana zuzentzen gara, zuen seme-alaben ordezkari gisan, galdekizun baten gainean zuek daukazuelako azken hitza.

Eskola Kontseiluak, 2017ko azaroaren 27an burututako sesioan, orain artean dagoen jardunaldiaren aldaketaren behin-behineko aldaketa onartu zuen, 2018-2019ko ikasturterako jardunaldi jarraiaz ezagutzen denaz aldatzea planteatuz.

Jardunaldi jarraian, astelehenetik ostiralera, eskola egunak goizeko ordutegian burutzen dira eta ikasleei astean lau egunez, arratsaldeko ordutegian arreta eskeintzeko derrigorrezko proiektu batekin kontatzen du (zerbitzu osagarriak, ekintza extraeskolarrak).

Erabakiak behin betiko izaera izango du, egindako familientzako galdetegiaren ondorioz, erroldaren (ikastetxeko ikasle kopurua) %60ak gutxienez onartuko balu. Familia bakoitzak ikastetxean dauzkan seme-alaben hainbeste botu egin ahal ditu.

Horretarako, datorren URTARRILAREN 18an, 08:45tik 19:30etara ikastetxean egingen bozketara deitzen zaituztegu.

Bozketa mahai bat sortuko da, ikastetxeko zuzendariak lehendakaritza gauzatuko du, eta idazkariak eta Eskola Kontseiluko gurasoen sektoreko ordezkari bat zozketan hautatua izanen denak osatuko dute.

Gainera, egun horretan zuzeneko botuaren alternatiba bezala, zuen botua **urtarrilaren 16 eta 17an** ikastetxeko idazkaritzan egonen den buzoian utzi dezakezue. Bozketa modu honetan egiten baduzue, ikastetxetik bidali zaizuen gutuna erakutsi beharko duzue, kanpoaldean familiaren ordezkari gisa botua ematen duenaren izena, NAN zenbakia eta sinadura izanen duena; barruan identifikatzailearen kopia (NAN/NIE/pasaportea) eta itxitako beste gutunaren barruan botuaren papera edukiko ditu. Bozketa paperean **SOILIK BAI/EZ** laukitxoan markatu beharko da. Ikastetxean seme-alaba bat baino gehiago izan ezkerro, seme-alaba adina botu gutun beharko dituzte.

Besterik gabe,

Agur bero bat